



# Sakanako Mankomunitatea (2012)



2014ko maiatza



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA .....	3
II. ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA .....	4
II.1. Datu orokorrak .....	4
II.2. Araudia .....	5
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA .....	7
IV. IRITZIA .....	8
IV.1. Kontu orokorra.....	8
IV.2. Legezketasuna .....	8
IV.3. Finantza egoera .....	9
V. 2012KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA .....	11
V.1. Mankomunitatearen kontuen egoera-orriak.....	11
V.2. Sozietate publikoaren kontuen kontabilitateko egoera-orriak .....	13
VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK .....	14
VI.1. Plan estrategikoa.....	14
VI.2. 2012ko ekitaldiko aurrekontua eta kontu orokorra .....	14
VI.3. Langile-gastuak .....	16
VI.4. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea .....	19
VI.5. Inbertsioak.....	21
VI.6. Transferentzien ondoriozko gastuak .....	24
VI.7. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk .....	25
VI.8. Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak.....	26
VI.9. Balantze kontuak .....	28
VI.10. Sozietate publikoa .....	30
SAKANAKO MANKOMUNITATEAK BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO IRUZKINAK .....	33





## I. Sarrera

2013ko ekainaren 17an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eskatuta, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Sakanako Mankomunitateari buruzko txosten bat egin zezala, azken bost urteak aztertzeko.

Kontuen Ganberak 2012ko kontuak fiskalizatu eta txostena 2013ko lan-programan sartzea erabaki zuen. Dena den, aurreko urteetako kontuetan kontu garrantzitsuak aurkituz gero, haiek ere aztertzea aurreikusi zuen.

Lan hau kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek osatutako lantaldeak egin zuen, Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan. Landa-lana 2013ko azaroaren 6tik 2014ko urtarrilaren 8ra egin zen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean Mankomunitatearen osaketa, antolaketa eta eskaintzen dituen zerbitzuak zehazten dira, eta baita fiskalizaturiko urtean kontuan hartu beharreko arautegia. Hirugarren atalean lanaren helburu eta mugak aipatzen dira, eta laugarrenean 2012ko kontu orokorrak, legezketasunaz eta urteko finantza egoeraz iritzia ematen da. Bosgarren atalak Mankomunitatearen eta haren sozietate publikoaren 2012ko kontuak biltzen ditu. Azkenik, seigarren atalak lanaren konklusioak eta Mankomunitatearen kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak jasotzen ditu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Mankomunitateko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.





## II. Erakundearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia

### II.1. Datu orokorrak

Sakanako Mankomunitatea 1984an sortu zen. Lakuntzan du egoitza. Sakanako eskualdeko 15 udalerrik osatzen dute. Eskualdea Arakil, Ergoiena eta Burunda ibarrek osatzen dute. 305,5 kilometro koadroko eremua da eta 20.768 biztanle zituen 2012ko urtarrilaren 1ean, 15 udalerrietan horrela banaturik:

Udalerria	Biztanleria 2012ko urtarrilaren 1ean
Altsasu/Alsasua	7.691
Arakil	952
Arbizu	1.093
Arruazu	114
Bakaiku	333
Ergoiena	405
Etxarri Aranatz	2.487
Irañeta	166
Irurtzun	2.302
Iturmendi	390
Lakuntza	1.252
Olazti/Olazagutia	1.662
Uharte Arakil	827
Urdiain	700
Ziordia	394
<b>Guztira</b>	<b>20.768</b>

Mankomunitateak honako zerbitzuok ematen ditu: ur-horniketa goi eta behe presioan, hiri hondakinen eta industria-hondakin ez arriskutsuen bilketa, kudeaketa eta tratamendua, euskara, immigrazioa, kirola eta etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa.

Mankomunitateak “Sakanako Garapen Agentzia, S.L.” sozietate publikoan parte hartzen du ehuneko ehunean. 2012an sortu zen, 60.000 euroko kapitalarekin, honako helburuak lortzeko: Sakanako garapen ekonomikoa bultzatzea, aholku ematea, kultura eta sorkuntza piztea eta enpresen mintegiak sortu eta kudeatzea.

Honako organo hauei dagokie Mankomunitatearen gobernu eta administrazioa: Batzar Orokorra (organo gorena), presidentea eta Gobernuko Batzorde Iraunkorra.

Kudeatzaile batek zuzentzen du Mankomunitatea. Horrez gain, 2005etik eta Batzar Orokorrak eskaturik, kontu-hartzaile lana ere egiten du.

Mankomunitateak 2012-2015 eperako plan estrategikoa onartu zuen 2012an.





Mankomunitateak bost kalitate-ziurtagiri lortu ditu:

- UNE-EN ISO 9001:2008 Kalitatearen kudeaketa.
- UNE-EN ISO 14001:2004 Ingurumena kudeatzeko sistemak.
- OHSAS 18001:2007 Lan segurtasun eta osasunaren kudeaketa.
- ISO 9001 de IQNET – Kalitatearen kudeaketaren nazioarteko ziurtagiria.
- E – Europar bikaintasuna (400 puntu EFQM).

Mankomunitateak 2012an izaera pertsonaleko datuen babes-sistemari buruzko auditoria egin zuen.

Hona hemen Mankomunitatearen eta haren sozietate publikoaren gastu, diru-sarrerak eta langileria, 2012ko abenduaren 31n:

	Onarturiko eskubideak	Onarturiko betebeharrak	Langile kopurua
Mankomunitatea	3.657.008	3.357.325	57 <sup>(1)</sup>

(1) Eskola-tailerreko 16 lagun barne.

Enpresa	Diru-sarrerak	Gastuak	Zergak ordaindu aurreko emaitza	Langile kopurua
Sakanako Garapen Agentzia, S.L	1	14.363	-14.362	1

## II.2. Araudia

2012an zehar, Mankomunitateak eta bere sozietate publikoak bete beharreko oinarritzko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

- 2002an onarturiko estatutuak.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, ezarritako berezitasunekin.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzazko Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.





- Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitate instrukzio orokorrari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, hurrenez hurren.
- Ordenantza fiskalak.
- Aurrekontu-betetzearen oinarriak.
- Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen Legeaz (Testu Bategina uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzazko Foru Dekretuak onartu zuen) eta azaroaren 6ko 1515/2007 Enpresa Txiki eta Ertaintzako Kontabilitate Plan Orokorraz.





### III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Sakanako Mankomunitatearen 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Lanaren xedea gai hauei buruz gure iritzia ematea da:

- Ea 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten zuen, 2012ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatze-koa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Mankomunitateak 2012ko finantza-jardueran legedia bete duen, bai eta 2010ean eta 2011n obren kontratazioari dagokionean.

- Mankomunitatearen egoera finantzarioa 2012ko abenduaren 31n.

Mankomunitatearen 2012ko kontu orokorra da aztergaia. Honakoek osatzen dute kontu hori:

a) Mankomunitatearen kontuak: aurrekontu-kitapenaren txostena, balantzea, emaitza ekonomikoa eta eranskinak (diruzaintzako emaitza, egoera emaitza eta baloreen mugimendua).

b) Mankomunitatea jabe bakarra duen sozietatearen kontuak: balantzea, irabazi eta galeren kontua, ondare garbiaren aldaketa egoera eta memoria, denak laburtuak.

c) Kontu Orokorraren eranskinak: lehendakariaren oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailearen txostena.

Fiskalizazio-lana honetan zetzan: barne kontrola, aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren lagin bat eta ondare-kontuak aztertzea, hautapen-proba batzuen birtatez eta lanaren xedeak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako auditoria-teknika batzuk erabiliz.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz.





## IV. Iritzia

Honakoa da arauzkotasunari buruz eginiko fiskalizazioaren inguruko iritzia, lanaren norainokoa kontuan hartuta:

### IV.1. Kontu orokorra

Balantzearen ibilgetua 18.139.419 eurokoa zen 2012ko abenduaren 31n. Saldo hau, hala ere, ez dago jasota Mankomunitatearen ondasun guztiak bildu behar lituzkeen zerrenda balioztatu eta gaurkotu batean.

Urteko eta bilduriko finantziazio-desbideratzeen kalkuluan eginiko hutsengatik, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina murriztagoa litzateke: 858.243 eurotik 551.067 eurora, hain zuzen. Halaber, 2012ko ekitaldiko aurrekontu emaitza doitua 611.270 eurotik 243.598 eurora jaitsiko litzateke.

Aurreko salbuespenen eraginengatik ez bada, Mankomunitatearen 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusienetan behar bezalako irudia erakusten du, abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, aurrekontuaren likidazioari buruz eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz.

### IV.2. Legezkotasuna

Oro har, 2012ko ekitaldian zehar, mankomunitatearen jarduera finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.







### IV.3. Finantza egoera

Mankomunitatearen diru sarrerak 3.657.008 eurokoak izan ziren 2012an; gastuak, berriz, 3.357.325 eurokoak. Ondoren, Sakanako Mankomunitatearen 2010etik 2012ra urteetako finantza-egoeraren adierazle batzuk ematen ditugu.

	2011	2012	Aldea (%) 2012/11
Diru-sarrera arruntak	3.188.665	3.365.882	6
Funtzionamendu-gastuak	2.816.468	2.754.213	-2
Aurrezki gordina	372.197	611.669	64
Finantza-zama	160.682	155.551	-3
Aurrezki garbia	211.515	456.118	116
Zorpetze-maila (%)	5,04	4,62	
Zorpetze muga (%)	11,67	18,17	
Zor bizia	890.244	985.274	11
Kapitaleko diru-sarrerak	960.789	67.562	-93
Kapital-gastuak	730.715	387.561	-47
Kapital-emaiza	230.074	-319.999	-239
Eragiketa finantzarioen emaiza	66.948	35.030	-48
Aurrekontu-emaiza doitua	46.068	243.598 <sup>(1)</sup>	429
Gastu orokorretako diruzaintza-gerakina	520.841	551.067 <sup>(1)</sup>	6

(1) Zuzendutako zenbatekoak.

Mankomunitateak diru-sarrera arruntekin finantzatu zituen funtzionamendugastuak eta zorraren finantza-zama, 2012an 456.118 euroko aurrezki garbia lortuz.

2012ko kapital-gastuak 387.561 eurokoak izan ziren, eta 223.564 euroko mailegu bat hartu zuen.

Aurrekontu-emaiza doitua 243.598 eurokoa da.

Mankomunitatearen 2012ko zor bizia 985.274 eurokoa da, 12 maileguren artean banaturik. 2012an 155.551 euroko finantza-zamar sortu zuen (128.533 euroko amortizazioa eta 27.018 euroko interesak). Zorpetze-maila diru-sarrera arrunten ehuneko 4,62 da. Zorpetze-muga, berriz, ehuneko 18,17 da.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 551.067 eurokoa da; horrenbestez, likidezia dago hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko.

**Beraz**, Mankomunitatearen 2012ko finantza-egoera ona zen. Izan ere, gastu arruntak finantzatu ondoren, ohiko baliabideetatik aurrezkiak sortu zuen; zorpetze-ahalmena diru-sarrera arrunten ehuneko 13,55eraino zuen eta, gainera, 551.067 euroko diruzaintzako gerakina zuen 2013ko gastuei aurre egiteko.





- Aurrekontu-egonkortasuna

Mankomunitateak eta haren sozietate publikoak 2012an bete egin zituzten aurrekontu-egonkortasun eta iraunkortasun finantzarioaren irizpideak

Alde batetik, finantziariorako ahalmena dute, 117.452 euroko superabita baitute, ondoko koadroak erakusten duen bezala:

	Zenbatekoa, 2012
Finantzaz besteko diru-sarrera bateratuak	3.433.445
Finantzaz besteko gastuak bateratuak	3.183.155
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	250.290
Diru-bilketarengatiko doikuntzak	
Itxitako aurrekontuetako tasa eta prezio publikoen kobrantza	354.983
2012ko aurrekontutik kobratzeko dauden tasa eta prezio publikoak	- 487.821
Finantzatzeko ahalmena	117.452

Bestalde, Mankomunitatearen zor biziak 2012an sortutako diru-sarrera arrunten ehuneko 29,27 egiten du (Sozietate publikoak ez du zorrik). Beraz, 2013an kreditu-eragiketa berriak ituntzeko ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik dago.





## V. 2012ko ekitaldiko kontu orokorra

### V.1. Mankomunitatearen kontuen egoera-orriak

#### V.1.1. 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

##### Gastuen aurrekontuaren betetzea kapituluko ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin-betikoko kreditua	Betebeharrak, aitortuak	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	% betetzea
Langile-gastuak	1	1.435.318	51.019	1.486.337	1.319.806	1.231.468	88.338	89
Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak	2	1.145.861	276.859	1.422.720	1.240.491	899.251	341.240	87
Finantza-gastuak	3	27.592	10.694	38.286	27.018	27.018	0	71
Transferentzia arruntak	4	234.603	-9.278	225.325	193.916	137.828	56.088	86
Inbertsio errealak	6	204.900	1.702.168	1.907.068	387.561	366.968	20.593	20
Aktibo finantzarioak	8	0	60.000	60.000	60.000	60.000	0	100
Pasibo finantzarioak	9	140.790	0	140.790	128.533	128.533	0	91
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>3.189.064</b>	<b>2.091.462</b>	<b>5.280.526</b>	<b>3.357.325</b>	<b>2.851.066</b>	<b>506.259</b>	<b>64</b>

##### Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea kapituluko ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betikoko aurreik.	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobranteke	% betetzea
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	1.609.501	11.019	1.620.520	1.822.654	1.334.834	487.820	112
Transferentzia arruntak	4	1.513.993	97.332	1.611.325	1.538.951	1.350.340	188.611	96
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	1.000	0	1.000	4.277	1.985	2.292	428
Inbertsio errealen besterentzea	6	0	0	0	2.992	2.992	0	
Kapital-transferentziak	7	64.570	0	64.570	64.570	62.777	1.793	100
Aktibo finantzarioak	8	0	1.372.277	1.372.277	0	0	0	0
Pasibo finantzarioak	9	0	610.833	610.833	223.564	223.564	0	37
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>		<b>3.189.064</b>	<b>2.091.461</b>	<b>5.280.525</b>	<b>3.657.008</b>	<b>2.976.492</b>	<b>680.516</b>	<b>69</b>

##### 2012ko ekitaldiko aurrekontu-emitza

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	3.657.008	4.354.454
Aitortutako betebeharrak garbiak	3.357.326	3.707.865
<b>Aurrekontu-emitza</b>	<b>299.682</b>	<b>646.589</b>
<b>Doitzeak</b>		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	322.508 <sup>(1)</sup>	993.802
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	180.655 <sup>(1)</sup>	265.056
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	85.769	128.224
<b>Aurrekontu-emitza doituak</b>	<b>243.598 <sup>(1)</sup></b>	<b>46.067</b>

(1) Zuzenduriko datuak.





### V.1.2. Diruzaintza-gerakina, 2012ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia	Aldea (%)
<b>(+) Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>1.094.731<sup>(2)</sup></b>	<b>1.868.560</b>	<b>-40</b>
Diru-sarrerren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	681.814	1.583.750	
Diru-sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	758.077	353.420	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	131.406	191.863	
(+) Gastuen itzulketak	63	1.418	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	465.705 <sup>(2)</sup>	257.091	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	10.924	4.800	
<b>(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>1.013.185<sup>(2)</sup></b>	<b>991.234</b>	<b>0,5</b>
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	506.259	472.032	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	18.060	9.297	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	487.567 <sup>(2)</sup>	509.905	
(-) Diru-sarrerren itzulketak	1.298	0	
<b>(+) Diruzaintzako funts likidoak</b>	<b>1.449.749</b>	<b>582.695</b>	<b>149</b>
<b>(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak</b>	<b>0<sup>(2)</sup></b>	<b>10.251</b>	<b>440</b>
<b>= Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>1.531.295<sup>(2)</sup></b>	<b>1.470.271</b>	<b>11</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzak. eta atxikia duten gastuak direla-eta	980.228 <sup>(2)</sup>	949.431	
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0		
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	551.067 <sup>(2)</sup>	520.840	65

(2) Zuzenduriko datuak.

### V.1.3. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa			Pasiboa		
Deskribapena	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia	Deskribapena	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
<b>Ibilgetua</b>	<b>18.139.419</b>	<b>17.749.757</b>	<b>A Funts propioak</b>	<b>19.208.177</b>	<b>17.186.275</b>
1 Ibilgetu materiala	17.809.481	17.442.283	1 Ondarea eta erreserbak	6.380.801	5.017.408
2 Ibilgetu ez-materiala	103.783	86.412	2 Kapital-dirulaguntzak	10.870.044	10.805.474
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	226.155	221.062	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	1.957.332	1.363.393
4 Herri-ondasunak	0	0	<b>Epe luzeko zorrak</b>	<b>985.274</b>	
5 Finantza-ibilgetua	0	0	4 Jasotako maileguak	985.274	890.244
<b>Zirkulatzailea</b>	<b>3.368.282</b>	<b>3.059.270</b>	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>1.286.016</b>	<b>1.311.994</b>
7 Aitortutako eskubideen zordunak	1.439.891	1.965.379	5 Aurrekontuko hartzekodunak	524.320	481.330
8 Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	418.221	510.775	Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	761.696	830.664
9 Finantza-kontuak	1.510.170	583.116	<b>Aplikatzeko dauden kontu-sailak.</b>	<b>10.924</b>	
			Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	10.924	4.800
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>21.507.701</b>	<b>20.809.027</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>21.490.391</b>	<b>19.393.313</b>





### V.1.4. 2012ko emaitza ekonomikoa

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
61 Langile-gastuak	1.326.575	1.454.726	70 Salmentak	1.778.727	1.631.713
62 Finantza-gastuak	27.018	22.630	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	36.013	12.610
63 Tributuak	132.648	90.457	76 Transferentzia arruntak	1.538.951	1.535.311
64 Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	1.095.106	1.042.126	78 Bestelako diru-sarrerak	12.191	9.031
65 Gizarte prestazioak	874	863			
67 Transferentzia arruntak	193.916	221.310			
68 Kapital-transferentziak	0	0			
69 Amortizaziorako eta horniduretarako zuzkidurak	0	0			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	589.744	356.553			
			84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketagaitiko galera (zor-saldoa)	5.390	26.367
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	584.354	330.186	Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa		

## V.2. Sozietate publikoaren kontuen kontabilitateko egoera-orriak

### V.2.1. Egoera-balantzea

Aktiboa	2012	Pasiboa	2012
Aktibo ez korrontea	3.303	Ondare garbia	48.941
Zerga geroratuengaitiko aktiboak	3.303	Kapitala	60.000
Aktibo arrunta	60.057	Ekitaldiko emaitza	-11.059
Zordunak	61	Pasibo arrunta	14.419
Eskudirua	59.996	Epe laburreko zorrak	10.347
		Merkataritzako hartzekodunak	4.072
Aktiboa, guztira	63.360	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	63.360

### V.2.2. Galeren eta irabazien kontu laburtua

Zor	2012
Langile-gastuak	-13.901
Bestelako ustiatze-gastuak	-457
Ustiapeneko emaitza	-14.358
Diru-sarrera finantzarioak	1
Gastu finantzarioak	-5
Emaitza finantzarioa	-4
Zerga aurreko emaitza	-14.362
Etekinen gaineko zergak	3.303
Ekitaldiko emaitza	-11.059





## VI. Ondorioak eta gomendioak

Atal honetan deskribatzen dira arauzkotasunari buruz eginiko fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak.

### VI.1. Plan estrategikoa

Mankomunitateak, 2012ko ekainean, 2012-2015 eperako plan estrategikoa onartu zuen. Barneko egoera eta ingurunea aztertu ziren DAFO izeneko sistema erabiliz: (ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak). Horren ondorioz, hamar lerro estrategiko finkatu ziren, Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuak kontuan hartuz (ura, hondakinak, kirola, immigrazioa, euskara, etxebizitzaren zaharberritzerako bulegoa), oinarrizko gizarte zerbitzuak, zerbitzu orokorrak, interes taldeak eta kudeaketa sistemak. 1.625 ekimen ezarri ziren eta 37 adierazle estrategiko zituen aginte-koadro integrala ere martxan jarri zen.

2012-2015 epeko plan estrategikoak jasotzen zituen ekimen batzuk bete egin dira 2012an, eta helburuak zenbateraino bete diren kalkulatzeko adierazleak ere finkatu dira. Sei hilabetean behin, kudeaketa batzordeak adierazleen emaitza aztertzen du.

### VI.2. 2012ko ekitaldiko aurrekontua eta kontu orokorra

#### VI.2.1. Aurrekontu orokorra eta aurrekontu kitapena

- Mankomunitatearen Batzar Orokorrak 2012ko otsailaren 28an onartu zuen 2012ko aurrekontua, 3.189.064 euroko diru-sarrera eta gastuak aurreikusiz. Behin betikoz onarturiko aurrekontua 2012ko maiatzaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aurrekontuaren espedienteak ez dakar urtean egin beharreko inbertsioen eranskina.

- Gastuen aurrekontuetako aldaketek 2.091.461 milioi euro egin zuten; gastuetarako kredituen ehuneko 66, hain zuzen. Funtsean, honakoei dagokie: 853.251 euro Lakuntza-Arruazu-Uharte eta horko adarretara ura eramateko kredituaren gerakina erabiltzea; eta 564.256 euroko kredituaren beste gehigarria hondakin-bilketarako, atez-ate sistemaren bidez.

Aurrekontu aldaketa guztiak aurrekontu-betetzearen arauk agindutakoaren arabera onartu eta bideratu dira. Beharrezkoa zen kasuetan argitaratu egin dira.

- 2012an onartutako betebeharrak 3.357.326 euro egin zuten, behin betiko kredituen ehuneko 64. 2012ko abenduaren 31ra arte eginiko ordainketak onartutako betebeharren ehuneko 85 izan ziren. Hurrengo koadroetan islatzen dira onartutako betebeharrak, izaera ekonomiko eta organikoaren arabera sailkatuta.





Sailkapen ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen %	Guztiaren %
Langile-gastuak	1.319.806	89	39
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	1.240.491	87	37
Finantza-gastuak	27.018	71	1
Transferentzia arruntak	193.916	86	6
Inbertsio errealak	387.561	20	12
Aktibo finantzarioak	60.000	100	2
Pasibo finantzarioak	128.533	91	4
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>3.357.326</b>	<b>64</b>	<b>100</b>

Sailkapen organikoa.	Aitortutako betebeharrak	Betetzea (%)	Gutzizkoaren gaineko betebeharrak (%)
Ura	954.189	49	28
Etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa	83.766	95	3
Kirolak	122.080	91	4
Euskara	350.889	100	10
Hondakinak	1.309.489	63	39
Zerbitzu orokorrak	394.342	99	12
Immigrazioa	47.012	96	1
Turismoa	95.559		3
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>3.357.326</b>	<b>64</b>	<b>100</b>

Langileriaren gastuak eta ondasun arrunten eta zerbitzuenak ehuneko 39 eta 37 egiten dute, hurrenez hurren.

Gastuen ehuneko 39a hondakin-bilketari dagokio eta ehuneko 28 ur-horniketari.

- Aitortutako eskubideak 3.657.008 euro egin zuten 2012an, behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 69. 2012ko abenduaren 31n, gastuen ehuneko 81 ordainduta zeuden.

Eskubideen ehuneko 50 tasa eta prezio publikoak dira eta ehuneko 42 transferentzia arruntak, hurrengo koadroan ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Betetzea (%)	Gutzizkoaren gaineko eskubideak (%)
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.822.654	112	50
Transferentzia arruntak	1.538.951	96	42
Ondare bidezko diru-sarrerak	4.277	428	
Inbertsio errealen besterentzea	2.992		
Kapital-transferentziak	64.570	100	2
Pasibo finantzarioak	223.564	37	6
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>3.657.008</b>	<b>69</b>	<b>100</b>





### VI.2.2. Kontu orokorra

Kontu orokorrean ez dira sartu ondorengo kontuak: beste erakunde publiko batzuek kudeatutako baliabideen egoera eta bilakaera, eta tasa eta prezio publikoen bidez finantzatutako zerbitzuen kosteen txostena. Mankomunitatea kide bakar duen sozietate publikoaren kontuak ere ez dira sartu.

Gure gomendioa da *aurrekontu orokorrak eta kontu orokorrak kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako agiri guztiak biltzea, bai Mankomunitateari dagokionez eta baita Mankomunitateak jabetza osoa duen sozietate publikoari dagokionez.*

### VI.3. Langile-gastuak

Langile-gastuak 1.319.806 milioi izan dira; gastu guztien ehuneko 39, hain zuzen. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 89 egin zuen. Urte amaieran ehuneko 93 ordaindu zen. 2011koekin alderatuz, ehuneko 9 gutxitu ziren.

Gastuen ehuneko 31 hondakin-bilketako langileriaren ordain-sariei dagokie.

#### VI.3.1. Plantilla organikoa

Batzar Orokorrak 2012ko otsailaren 28an onartu zen urteko plantilla orokorra. Guztira 32 lanpostu dira, honela sailkatuta:

Lanpostua	Guztira	Lanpostu hutsak	Maila
Gerentea	1		A
Idazkaria	1	1	A
Kontu-hartzailea	1	1	A
Euskara teknikaria	3		B
Arkitekto teknikoa	1		B
Kirol teknikaria	1		B
Ofizial administraria	4		C
Administrari laguntzailea	1	1	D
Zerbitzu anitzetarako arduraduna	1		C
Mantentze lanetako ofiziala	2	1	C
Mantentze lanetako peoia	2	2	D
Garbiketa-peoia <sup>(1)</sup>	5	4	
Txoferra <sup>(1)</sup>	3		
Furgoneta txoferra-peoia <sup>(1)</sup>	2		
Txofer-peoi aditua <sup>(1)</sup>	1		
Hondakin zentroko txofer-peoia	2	2	D
Garbitzailea	1		D
<b>Guztira</b>	<b>32</b>	<b>12</b>	

(1) Lan kontratadunak dira. Hondakin-bilketaz arduratzen zen enpresakoak ziren, eta zerbitzuaren kanpoko kontratazioa amaitzean, Mankomunitateak bere gain hartu zituen. Plantilla organikoan ez da lanpostu horien mailarik zehazten.







Plantilla organikoan bitan jasotzen dira aldi baterako lanpostuak, eszedentzia, jardunaldiaren murrizpena edo beste arrazoiren batengatik jabeak lanpostua betetzen ez duen kasuetan.

32 lanpostutik, 12 bete gabe daude, horien artean idazkaria eta kontuhartzailea. Bi zeregin horiek Altsasuko idazkariak eta gerenteak betetzen dituzte, hurrenez hurren.

2012an bete gabe zeuden hondakin bilketako txofer-peoi lanpostuen deialdia egin zen, prozedura murriztuaren bidez, E mailatik D mailara igotzeko.

### *VI.3.2. Ordainsarien lagina*

Langileria gastuen ehuneko 17 aztertu dugu, honako lansariak, hain zuzen: Mankomunitateko presidentearena, gerentearena, administrari ofizial batena, euskara teknikari batena, txofer batena eta txofer-peoi batena.

Mankomunitateko presidenteak erabateko arduraldia dauka. 35.399 euroko soldata irabazi zuen 2012an, Batzar Orokorrak onarturikoari jarraituz.

Batzar Orokorrak, 2011ko irailaren 29an, batzarkideek eta Euskara eta Kirol Batzordeetako kideek jasotzen zituzten ordainsariak bertan behera uztea erabaki zuen.

Laginean sarturiko funtzionario eta lan-kontratudunei 2012an ordainduriko soldatak plantilla organikoaren arabera betetzen duten postua eta zirkunstanzia administratibo eta familiararen arabera dira. Arautegiak agindutakoa betetzen dute, eta aplikatutako kenketak zuzenak dira.

Ez dago langile bakoitzari buruzko txostenik, bakoitzari loturiko zirkunstanzia pertsonalak eta ekimen administratiboekin.

### *VI.3.3. 2012ko abenduko aparteko soldata*

Udalak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, ordaintzeko betebeharrak aitortu zuen kontzeptu hori dela eta. Betebeharrak hori 2013ko urtarrilean ordaindu zuen.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamunean. Horrek zalantza batzuk planteatu ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliazarritasunari buruz. Hori dela eta, “2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko”, Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainetzeko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu da, Konstituzio





Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekursoak direla eta, egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judizial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela iruditzen zaigu.

#### *VI.3.4. Enplegu Eskola Tailerreko langileria gastuak*

Enplegu eskola tailerren helburua da langabetuen prestakuntza bultzatzea, lan merkatuan sartzeko bidea eman eta interes publiko edo soziala duten lan eta zerbitzuak egitea.

Ikasle eta monitoreen ordainsariek, eta tailer eskolari loturiko bestelako gastuek, 172.213 euro egin zuten. Zenbateko horretatik, 19.505 euro 2012an gastatu ziren, eta gainerakoa 2013an.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2012an 162.515 euroko diru-laguntza eman zion mankomunitateari, Tailer Eskolaren gastu guztiak finantzatzeko.

Beraz, hainbat urtetarako gastuaren finantziazioa ehuneko 94,37 dela kontuan hartuz, 144.109 euroko finantziazio-desbideratze positiboa sortu zen 2012an, 2013an tailer eskolan eginiko gastuei lotua. Desbideratze hori ez zen kontuan hartu, ez aurrekontu-emaitzan eta ez 2012ko diruzaintzako gerakinean.

#### *VI.3.5. 2012an deitutako lanpostuak*

2012an behin-behineko lanpostu batzuen deialdia egin da:

- Sei berriemaile-hezitzaile eta komunikazio teknikari bat, “atez-ateko” zabor gaikako bilketa martxan jartzeko kanpainarako.
- Enplegu tailerreko zuzendari bat eta irakasle bat.
- Txofer-peoi bat.
- Zabortegean lan egiteko bi peoi.
- Turismo bulegoan udan lan egiteko bi administrari-laguntzaile.

Txofer-peoiarena izan ezik, lanpostuak ez daude jasota plantilla organikoan.

Erretiratze partziala hartua zuen txofer-peoia ordezkatzeko hautaketa sistema aztertu dugu. Mankomunitateak erabili duen prozedurak publizitate, meritua, ahalmen eta berdintasun irizpideak bermatzen ditu.

Hona gure gomendioak:

- *Bete gabe dauden plantillako lanpostuak aztertu eta deialdia egitea merezi duen erabaki.*
- *Lanpostuak plantilla organikoan islatu, behin-behinez beteta daudenean bikoiztu gabe.*





- *Langile bakoitzari txosten pertsonala zabaltzea. Bertan langileen zirkuntantzia pertsonalak eta bakoitzari lotutako ekimen administratiboak jaso behar dira.*
- *Atxikitutako finantziarioa duten tailer eskolaren hainbat urtetarako gastuen jarraipena egitea, gastu-proiektuen bitartez. Halaber, finantziarioaren desbideratzea aurrekontu-emaitzari eta diruzaintzako gerakinari egotzi behar zaie.*

#### VI.4. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea

Mankomunitateak 2012an erosi zituen ondasun eta zerbitzu arruntek 1.240.491 euro egin zuten; diru-kopuru hori gastu guztien ehuneko 37 da. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 87 egin zuen. Ekitaldi amaieran, ehuneko 72 zegoen ordaindua.

Ehuneko 47 hondakin-bilketari dagokio, eta ehuneko 30 ur-horniketari.

2012ko ondasun eta zerbitzu arruntak 2011koak baino ehuneko 8 handiagoak izan ziren, batez ere hurrengo bi kontzeptuengatik:

a) Urdalur urtegiaren kanona: uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzazko Foru Dekretuak onartutako Uren Legeak ezarritako arautze-kanonari dagokio Horren helburua da, batetik, Estatuak finantzatutako obra hidraulikoen kostua konpentsatzea; eta, bestetik, obra horien mantentze eta ustiapen gastuei aurre egitea.

Kanona ehuneko 48 igo zen 2011koarekin alderatuz, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak onartutako zerga igotzeaz gain, emariaren metro kubikoak ere handitu egin zirelako.

b) Paper eta kartoiaren erosketa: 2012an 44.963 euroko gastua dago kontabilizatua, baina zenbateko horretatik 34.716 euro 2010 eta 2011ko ekitaldiei dagozkie, Mankomunitateari 2012an fakturatutakoak.

Ondasun eta zerbitzuen arrunten lagin bat aztertu da. 2012koen ehuneko 54 da eta hurrengo kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharra
Hondakinen garraioa	146.769
Urdalurk urtegiaren kanona	127.675
Euskara plana	86.889
Kirol jarduerak	57.948
Presio baxuko sareen mantentze-lana	47.437
Papera eta kartoia.	44.963
Jai busa	31.268
Atez-ateko gaikako bilketa	44.243
Parke informatikoaren mantentzea	21.390
Kalitate sistema	19.505
Zabortegearen mantentzea	19.153
Biomasa	18.595





## Laguntza-kontratu hauek ere aztertu ditugu:

Xedea	Prozedura	Eskatutako eskaintzak	Aurkeztutako eskaintzak	Eskaintzaren prezioa BEZ gabe	Adjudikazioaren prezioa BEZa gabe
Biomasaren bidezko kogenerazioaren bidegarritasuna	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	3	20.000	18.595
Atez-ateko komunikazio plana	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	2	28.000	27.535
Atez-atekoa martxan jartzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	2	29.000	27.550
Euskara ekitaldiak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	1	28.485	28.485

Ondoren, adierazitako lagina fiskalizatu ondoren lortu ditugun **ondorio ai-pagarrienak** iruzkinduko ditugu.

Aztertutako kontratuen esleipen eta betetzea, orokorrean, kontratu legediaren arabera egin ziren. Kredituaren erreserba baieztatzen duen dokumenturik ez dago.

Aztertutako gastuak, oro har, justifikatuta eta dagozkien fakturretan oinarrituta daude. Halaber, onartuta daude, kontu-hartzaileak baimenduta, behar bezala kontabilizatuta eta 30 eguneko epea ordainduta, faktura jaso zenetik kontatzen hasita. Hondakinen garraio-gastuak kontratuak agintzen duen 60 eguneko epean ordaintzen dira.

- Hondakinen garraioa

Hondakin organikoen garraio-zerbitzuaren prezioa ehuneko 2,4an gaurkotu zen 2012ko ekitaldirako, eta ez ehuneko 2,9an, baldintza-agiriaren arabera azken hori aplikatu behar bazen ere.

Kontratuaren agiriak dioenez, ontzien garraioa garraiatutako tonen arabera ordaindu behar zen. Adjudikaziodunak eskatuta, ordea, Mankomunitateak bidaiako prezio finkoa ordaintzea onartu zuen.

- Jai busa

Gazteak Sakanako herrietako festetara eramateko garraio-gastuari dagokio. 2012an 29.495 euroko gastua eragin zuen. Kontratazioa zuzenean egin zen, hiru eskaintza eskatu gabe.

- Euskara

Euskara-programa baten laguntza-kontratuaren lizitazioa publizitaterik gabeko prozedura hitzartuaren bidez egin zen, nahiz eta kontratuaren zenbatekoa, egin zitezkeen luzapenak kontuan hartuz, 90.000 eurotik gorakoa izan (BEZ kenduta).





Hona gure gomendioak:

- *Kontratuen lizitazioa kontratu legediak agindutakoaren arabera egin, aurreikusitako zenbatekoa kontuan hartuz.*
- *Laguntza kontratuen ordainketa-epaia Kontratu Publikoen Foru Legeak agindutako 30 eguneko epera egokitzea.*

## VI.5. Inbertsioak

2004ko ekitaldian eginiko inbertsioek 387.561 euro egiten dute, eginiko gastu guztien ehuneko 12 alegia. Ekitaldiaren amaieran, programaren diru-sarreraren ehuneko 95 zegoen ordainduta. 2012ko inbertsio nagusia 225.818 eurokoa da: Lakuntza-Arruazu-Uharte eta adarretara ura eramatea.

Behin betiko kredituen ehuneko 20 bete zen. Betetze-maila txikiaren arrazoia da ura eramateko aurreikusitako 1,08 milioiko obren ehuneko 21 besterik ez zela egin; eta 624.256 euroko kostua zuen atez-atezko bilketa sistema ez zela martxan jarri. Hurrengo inbertsioen adjudikazio eta betetzearen fiskalizazioa egin da:

Kontratua	Xedea	Lizitazio prezioa, BEZa gabe	Lizitatuzaileen kopurua	Adjudikazio prezioa, BEZa gabe	Adjudikazioaren beherakada
Obra	Lakuntza-Arruazu-Uharte eta adarretara ura eramatea	1.026.179	7 aurkeztuak 5 onartuak	1.021.048	0,5%
Obra	Urdalurreko gordetgia	1.052.931	10 aurkeztuak	937.109	% 11
Hornidura	Kamioi bat erostea	165.948	4 aurkeztuak	148.000	10,82%

Hiru kontratuak europar atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez adjudikatu ziren, eskaintza hoberenaren irizpidea kontuan hartuz.

Zaborteia berreskuratzeko inbertsioa ere aztertu da. 23.000 eurukoa da, BEZ gabe, eta 2012an egin zen.

Fiskalizatutako inbertsio guztiak Toki Azpiegituren 2009-2012 epeko planean daude.

Urdalurreko gordetgia eta kamioia erosteko hornidura kontratua 2010ean esleitu ziren.

Lanen kontratazio, adjudikazio eta betetzea, oro har, kontratu legediaren arabera egin dira. Salbuespena bakarra da egindako obra-unitate berriak, hasieran kontratatutakoetan ez baitziren aurreikusi.

Gastuak kontu-hartzaileak aztertuta, onartuta eta behar bezala kontabilizatuta daude. Eta, orokorrean, agindutako epean ordaindu dira.

Ez dira kalkulatu obra horretan izandako finantzaketa-desbideratzeak.





Ondoren, eginiko fiskalizazioaren **ondorio nagusien** gaineko iruzkina egingen dugu.

- Lakuntza-Arruazu-Uharte eta adarretara ura eramatea

Mankomunitateko presidenteak, premiazko arrazoia aipatuz, 2012ko otsailaren 7an adjudikatu zuen 1.021.048 eurotan, BEZ kanpo. Batzar orokorrak, kontratazio organoa baitzen, aho batez onartu zuen presidentearen adjudikazio-agindua.

Lanak hasi eta hiru egunera, ordea, gelditu egin ziren, sei hilabete eta erdiz, desjabetze bidean zeuden ondasunen jabeek ez baitzuten pasatzeko baimenik eman. 2012ko irailaren 1ean hasi ziren berriro.

Obra bi proiektu ditu: Nafarroako Gobernuan aurkeztutakoa, hirurteko planean sartzeko, eta lizitatutakoa. Obra lanen betetze-kostu osoa berdintsua da, baina badira aldaketa batzuk obra-unitateetan eta aurrekontu-sailetako aleko prezioetan. Departamentuan aurkeztutako proiektuaren kontusail bakoitzak obra-unitate kopuru txikiagoa zuen, baina prezioa handiagoa zuen lizitatutakoak baino. Lizitutakoak, berriz, obra-unitate gehiago zituen, baina aleko prezio murriztagoak.

Mankomunitatea eta obra-zuzendaritza, batetik, eta enpresa kontratuduna, bestetik, ez dira ados jartzen prezioei eta egiaztatutako obra-unitateei dagokienez. Enpresak ez zituen lehen hiru ziurtagiriak sinatu eta laugarrena eta azkena ados ez zegoela esanez sinatu zituen, zuzendu ondoren adjudikatutako prezio eta obra-unitateetara egokitzen baziren ere. Hasieran, Nafarroako Gobernuan aurkeztutako proiektuaren arabera eginga zen egiaztapena.

Obra-lanak 2013an amaitu ziren eta kitapena egiteko dago oraindik. Arakil Uharte eta Irañetako adarrak ez dira egin. Batzar Orokorrak 13.324 euroko zigorra ezarri zion enpresa adjudikaziodunari, lanak 109 egun beranduago amaitzeagatik.

Obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiriaren arabera, eginiko obra lanen kostua 644.551 euro da, BEZ barne. Ziurtagirian “hobekuntzak” kontzeptuagatik sartuta zeuden 91.719 euro kendu dira. Izan ere, proiektuari egiten zaizkion hobekuntzek - teknikoak edo materialen kalitatean- ez dakarte prezio-igoerarik, baldintza-agirian jaso eta adjudikazio egiterakoan kontuan hartu baitziren.

Enpresa adjudikaziodunak 1.349.484 euro eskatzen ditu, eta lanen azken ziurtagiria onartu eta berandu betetze-eparean atzerapenagatik Batzar Orokorrak onarturiko zigorraren aurkako gorako helegitea aurkeztu zuen.

Obra-lanen finantziazioa bikoitza da: Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, gehienez 889.629 eurokoa; eta 2012an harturiko 223.564 euroko mailegua, ehuneko 4,97ko interesarekin eta 15 urteko amortizazio epea zuena.





Proiektuaren aldaketa ikusita, 2013ko abenduaren 31n Nafarroako Gobernuak erabaki zuen, behin-behinean, diru-laguntza 294.985 euroan murriztea.

Beraz, ikusteko dago obrak Mankomunitateari eraginen dion ondorio ekonomikoa, bai kostuan eta baita finantziazioan ere.

Kontabilizazioari dagokionez, aurreikusitako gehienezko zenbatekoan egin zen, eta finantziatio-desbideratzeak ez ziren behar bezala kalkulatu. Ondorengo koadroan ikusten dira diferentziak:

Finantziatioaren desbideratzea	Kalkulatua	Zuzendua
Urtekoa, positiboa	0	178.400
Urtekoa, negatiboa	225.818	180.655
Bildutako positiboa	672.596	836.120
Bildutako negatiboa	55.415	0

- Urdalurreko gordetegia

Batzar Orokorrak, 2010eko ekainaren 28an, obra-lanak 937.109 euroan adjudikatzea erabaki zuen (BEZ kanpo), lau hilabeteko betetze-epea emanez. Esleipena ez zen kontratazio portalean argitaratu.

Enpresa adjudikaziodunak behar baino 15.795 euro gehiago fakturatu zizkion Mankomunitateari (BEZ kanpo), aplikatutako adjudikazio baja ehuneko 9,5koa izan baitzen, eta ez ehuneko 11. Akatsaren arrazoia BEZren aldaketa izan zen, ehuneko 16tik 18ra igo baitzen, 2010eko uztailaren 1etik.

Mankomunitateak ordaindu behar ez ziren 15.794 euro itzultzeko eskatu dio enpresari.

Obra unitate berrien betetzea (23,708 euro) ez zen kontratu legediak agindutako prozeduraren arabera egin. Prezio kontraesankorren akta baizik ez da agertzen, unitate berriak egin ondoren sinatua.

Obra lanak 2011n amaitu eta likidatu ziren. Hala ere, 2012ko abenduaren 31n, bildutako 96.180 euroko desbideratze positiboak 2012ko diruzaintzako gerakinari egotzi zitzaizkion.

- Kamioi trinkotzailea atzeko zamaduna

Inbertsio honek 2010 eta 2011ko aurrekontuetan izan zuen eragina. 2010ean 137.073 euroko finantziatio positiboaren desbideratzea eragin zen, Gobernuaren diru-laguntza ez baitzen kontuan hartu, ez aurrekontu emaitzan eta ezta urteko diruzaintzako gerakinean ere.

- Lixibiatuen tratamendua zabortegian

Inbertsio hau 2011ko aurrekontuan sartu zen. Hasierako eta behin betiko aurreikuspena 1.014.177,63 eurokoa izan zen. Ekitaldian ez zen deus bete.





2012an 23.000 euroko gastua kontabilizatu zen. Honakoari dagokio: Arbizu-ko Udalak saneamendu-sarearen jabetza eta eskubideen ehuneko 80 Mankomunitateari eman zion, zabortegiko lixibiatuen tratamendu-estaziotik datozen urak kanporatzeko. Lagapenaren balioespena obraren proiektuaren arabera da.

Proiektuak aurreikusitako beste ekimenak ez dira bete, Nafarroako Gobernuak ez baitzikio Mankomunitateari eman horretarako behar zituen baimenak.

Gure gomendioak:

- *Kontratuak aurreikusi gabeko unitate berriak betetzen badira, eta horretarako kontratazio-organoak kreditu osoa ez badu, kontratu-aldaketa egin behar da.*

- *Lizitazio-proiektua Nafarroako Gobernuan aurkeztutakoa ez bada, lizitazioa egin aurretik hori arrazoitu eta aldaketak azaldu behar zaizkio Gobernuari.*

- *Desbideratzeak ongi kalkulatu, finantziario-koefizientea eta finantziario gastu guztiei lotutako baliabide guztiak kontuan hartuz.*

- *Diru-laguntzei dagokienez, emaileak betebeharra onartu duela jakitean onartu behar da eskubidea. Bestela, kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatu behar dira.*

## VI.6. Transferentzien ondoriozko gastuak

Transferentzia arruntengatiko gastuek 193.916 milioi eurokoak izan ziren 2012an; gastu guztien ehuneko 5,78, hain zuzen. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 86 egin zuen. 2012ko ekitaldia burutzean, diru-sarreraren ehuneko 71 kobratuta zegoen.

2012an sortutako gastu transferentziak 2011koak baino ehuneko 12 txikiagoak izan ziren.

Transferentzia arrunten gastuaren ehuneko 67 fiskalizatu dugu. Ondorengo kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharra	Onuradunak
Euskara irakasleendako diru-laguntza	23.000	88 partikular
Euskarazko hedabideetarako diru-laguntza	80.000	Entitate bat
Ur-horniketaren finantza-zamarako ekarpena	26.658	Sei udal

- *Euskararen aldeko instituzioendako transferentziak transferentzia arrunten ehuneko 71 dira. 2011n emandakoekin alderatuz, ehuneko 8 jaitsi ziren.*

Ekitaldien memoriak jasotzen ditu Euskara Batzordeak 2012rako onartutakoak; bertan zehazten dira aurreikusitako ekitaldiak, helburuak eta ekitaldi bakoitzaren aurrekontua. Guztira 138.000 euro dira.







2011/2012 ikasturtean sakandarrei euskaraz alfabetatzeko emandako 23.000 euroko diru-laguntzak aztertu ditugu, eta bertako euskarazko komunikabideei emandako 80.000 eurokoa.

Diru-laguntza hauek deialdiaren bidez eman ziren, publizitatea eginez, ba-koitzaren araudiak zehaztutako prozeduraren arabera eta justifikatutako gastuen arabera ordaindu ziren.

- Udalei behe presioko ur-horniketarako maileguen interes eta amortizazioa finantzatzeko emandako ekarpena transferentzia arrunten ehuneko 14 da. 2011n baino ehuneko 31 gutxiago izan ziren.

2011n mankomunitateak bere gain hartu zuen behe presioko ur-horniketa zerbitzuaren kudeaketa, Batzar Orokorrak sei herrik utzitako eskumena onartu baitzuen. Aldi berean, udal horiek zerbitzua emateko hitzartuak zituzten maileguen finantza-zama ere finantzatzea erabaki zuen.

2012an ez zen kontabilizatu Bakaiku eta Iturmendiren ekarpena, 15.857 euro guztira, aipatutako udalek ez baitzioten igorri mankomunitateari ekarpenari zegokion ziurtagiria.

Bestalde, 2013ko 1.387 euroko gastua 2012an onartu zen.

#### VI.7. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Mankomunitatearen zerga, tasa eta prezio publikoen bidezko diru-sarrerak 1.822.654 eurokoak izan ziren, eskubide guztien ehuneko 50. 2012ko ekitaldiaren amaieran ehuneko 73 zegoen kobratuta.

2011n baino ehuneko 11 gehiago izan ziren, batez ere ur-horniketaren diru-sarrerak ehuneko 38 handitu zirelako. Izan ere, 2012an aurreko urtean kobratu gabeko kontzeptu batzuk kobratu ziren, hala nola, kontagailu bakoitzeko kuota finkoa eta ureztaketa-ura. 2011n atzemandako ur-kontagailuen akatsak ere zuzendu egin ziren.

Kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak
Zaborren tasa	826.996
Horniduraren tasa	562.686
Industria-hondakinak	247.212
Paper/kartoiaren salmentatik	110.212
Premiamendu-errekargua	17.330
Salmentak	15.122
Zaborrontziak	14.865
Festetako autobusen diru-sarrerak	13.030
Bestelako diru-sarrerak	12.191
Berandutze-interesak	1.833
Irañetako ur-kontrola	1.177
<b>Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira</b>	<b>1.822.654</b>





Batzar Orokorrak, 2011ko azaroaren 22an, ordenantza fiskal orokorra eta Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen tasa eta prezio publikoen ordenantza fiskal arautzaileak onartu zituen.

Zabor, hornidura, industria hondakin eta paper eta kartoiaren tasen bidez jasotako diru-sarreraren lagin bat aztertu da.

Aztertutako tasa eta prezio publikoen likidazio eta bilketa, oro har, araudien arabera kudeatzen dira. Ordaindu beharreko zerbitzuen gaineko kontrol sistematik martxan jarri direla egiaztatu dugu.

Industria-hondakinei dagokienez, ordea, aipatzekoa da ez dela garraio-preziorik onartu. Ordenantzak hondakin mota bakoitzeko tonako prezioa baizik ez da arautu.

*Gure gomendioa da industria-hondakinen garraio prezioa onar dadila.*

## VI.8. Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak

2012ko transferentzia arruntak honako erakundeetatik jaso ziren.

Entitatea	Transferentzia arruntak	Kapital transferentziak
Udalerriak	898.591	64.570
Foru Administrazioa	303.249	
Enpresa pribatuak	172.127	
Nafarroako Hondakin Partzuergoa	133.664	
Familiak	25.472	
Nilsa	5.848	
Guztira	1.538.951	64.570

Kapitulu honetan diru-sarrerak 1.538.951 eurokoak izan dira, onartutako eskubide guztien ehuneko 42. 2012ko abenduaren 31n ehuneko 87,7 zegoen kibratuta.

Kapital transferentziek 64.570 euro egin zuten. Udalek goi presioko ur-horniketaren zerbitzuari loturiko finantza zama finantzatzeko eginiko ekarpenei dagokio.

Udalen ekarpen arrunten ehuneko 38 euskara zerbitzuaren gastuak finantzatzeko erabili zen, ehuneko 29 goi presioko ur-horniketarako eta ehuneko 11 kirol zerbitzurako.

Foru Administrazioaren transferentzien ehuneko 54 Nafarroako Enplegu Zerbitzuari dagokio.





Transferentzia arruntengatiko sarreraren lagin bat fiskalizatu dugu, guztiaren ehuneko 65 eta kapital transferentzien ehuneko 100. Hurrengoak dira:

Entitatea	Transferentzia arruntak	Kapital transferentziak
Udalak: ura goi presioan	257.630	64.570
Udalak: euskara	345.800	
Udalak:kirola	98.132	
Enpresa pribatuak	161.654	
Hondakinen tratamendurako partzuergoa	133.664	

Ondoren, eginiko fiskalizazioaren **ondorio nagusien** gaineko iruzkina eginen dugu.

- Udalek Mankomunitateari prestatzen dituen zerbitzuak finantzatzeko eginen dizkieten ekarpenak arrazoituta eta kostu garbietan, zuzenetan (langileria, ondasun arruntak eta finantza zama) eta egiturazkoetan (zerbitzu orokorrak) eta maileguekin finantzatu gabeko zerbitzuei lotutako inbertsioetan daude oinarriturik.

Goi presioko ur-horniketaren kostu eta inbertsioak bakarrik goi presioko ur-zerbitzuan daude udalei kobratzen zaizkie. Banaketa kontsumitutako metro kubikoen arabera egiten da.

Finantza-zama finantzatzeko udalen ekarpenak kapital transferentziazat kontabilizatzen dira, eta gainerako gastuak finantzatzen dituztenak, inbertsioak barne, transferentzia arruntatzat hartzen dira.

Kirol Zerbitzuaren zuzeneko kostuak ehuneko 65ean biztanleria kontuan hartuz banatzen dira. Gainerako ehuneko 35ean, udal bakoitzak kuota finkoa du, egiten dituen kirol-ekitaldien arabera doitua. Azpiegitura kostuak biztanleriaren arabera banatzen dira.

Euskara Zerbitzuaren kostuak biztanle kopuruaren arabera egozten zaizkie udalei.

- Mankomunitateak 162.515 euroko fakturazioa egin zion enpresa bati paper-kartoi eta ontzi arinen bilketagatik. Fakturazioa diru-sarrera horiek arautzen dituzten hitzarmen arabera da.

- Hondakin Partzuergoak 2012an 133.644 euro ordaindu zizkion mankomunitateari, partzuergoak mankomunitatean bertan eginiko zama-lanetarako nasak sorturiko gastuengatik. Izan ere, Partzuergoak mankomunitatearen egoitzan eraiki zuen aipatutako nasa. 2013an sinatu zen hitzarmen arautzaileak zehazten ditu, besteak beste, partzuergoak Mankomunitatearen esku utzitako ekitaldiak, finantzatutako gastuak eta horien finantzaketarako irizpideak. Hitzarmenak ez du jasotzen partzuergoak gabarraren amortizazioagatik Mankomunitateari eginen dion deskontua.





## VI.9. Balantze kontuak

Ondoren azaltzen dira 2012ko abenduaren 31ko egoera balantzearen kontuen berrikuspenetik ateratako ondorioak.

2011 eta 2012ko egoera balantzeen saldo aktibo eta pasiboa ezberdinak dira. 2012koan aktiboa handiagoa da 17.309 euroan pasiboa baino. 2011n, berriz, aktibo eta pasiboaren aldea 1.415.714 eurokoa da.

- Ibilgetua

Mankomunitatearen ibilgetuaren saldoa, 18.139.419 euro 2012ko abenduaren 31n, ez dago oinarritua ondasun eta eskubide guztiak biltzen dituen ondasun-zerrenda balioztatu eta gaurkotuan. Ibilgetu materialen ondasunak jasotzen dituen balioztatu eta gaurkotu gabeko zerrenda bat besterik ez dago.

60.000 euroko inbertsio finantzarioa Mankomunitateak Sakanako Garapen Agentzian duen parte-hartzeari dagokio, sozietatearen ehuneko ehun. Diru hori ez da ibilgetu finantzariotzat kontabilizatu, aldiko inbertsio finantzariotzat baizik

Gure gomendioak:

*Mankomunitatearen ondasun eta eskubide guztiak biltzen dituen ondasun-zerrenda balioztatu eta eguneratua onestea, ekitaldi bakoitzaren amaieran.*

*Sozietate publikoari eginiko kapital-ekarpena ibilgetu finantzariotzat kontabilizatzea.*

- Zordunak

2012ko abenduaren 31ko zordunen kontuaren saldoa 1.858.112 eurokoa zen, eta honako kontzeptuoi zegokien:

Kontzeptua	Saldoa
2012ko ekitaldiko zordunak	681.814
Itxitako aurrekontuetakoak	758.077
Beste erakunderen errekurtsioengatik zordunak	285.103
Ogasun publikoa. BEZa dela eta zordun	90.003
Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	43.115
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>1.858.112</b>

Itxitako aurrekontuetako zordunen 758.077 euroko kontua Foru Administrazioaren 543.653 euroko diru-laguntzari dagokio, 2011n Lakuntza-Arruazu-Uharte zatira ura eramateko aurreikusia; eta 149.989 euro 1998 eta 2011 arteko zabor tasei.

Nafarroako Gobernuak aipaturiko obraren finantzaketa 294.985 euroan gutxitzea erabaki zuen.





Ordenantzak finkatutako epean kobratu gabeko tasa eta prezio publikoak premiamendu-bidetik biltzen dira, behin borondatezko epea amaituta. Betearazteko epea ez da automatikoki hasten sarrera egiteko epea amaituta.

Behin borondatezko epea amaituta, eta premiamendu-prozedura hasi aurretik, ez da zorraren gaineko errenergua eskatzen, ez berandutze-interesak ordainarazten betearazteko epean, zerga-legediak zehazten dituen kasuetan. Alde horretatik, aipatzekoa da Mankomunitateko presidentek idazki bat igorri ziola bide agentzia betearazlea kudeatzen duen enpresari, egoera konpon zezan.

Agentzia betearazleak bidalitako informazioa ez da alderatzen kontabilizatutako datuekin.

Kobratzeko zailak diren eta diruzaintzako gerakinetik kendutako eskubideen kalkulua 23.000 euroan murriztu da.

Beste erakundeen errekurtsioengatik zordunetan Nafarroako Hiri Hondakin Partzuergoa eta saneamendu-kanonaren zordunak daude. Aurrekontukoak ez diren diru-sarrerori dagokienez, aldaera txiki batzuk daude bilketa programa informatikotik hartutako datuen eta kontabilizatutako artean. Gainera, “beste erakunderen errekurtsioengatik eskubide-zordunen” kontu-saldoaren eta “erakunde publikoak, kobratzeko eskubideak” kontuaren artean 5.037 euroko diferentzia dago, lehenbizikoak 285.104 eurokoa baita, eta bigarrena 291.141 eurokoa. Bi kontuok saldo bera behar lukete.

Gure gomendioak:

*Beste erakundeen errekurtsioak kontabilizatzen dituen zordun eta hartzekodunen kontuen saldoak zuzendu behar dira.*

*Agentzia betearazleak bilketa datuekin jasotako datuak kontabilizatutako informazioarekin alderatu behar da, gutxienez ekitaldiaren amaieran.*

- Finantza-kontuak

2012ko abenduaren 31n finantza-entitateetan dagoen diruzaintzako saldo osoa 1.449.749 eurokoa da.

Diruzaintzako dirua ateratzeko baimena, horretarako sinadura duen edonork bakarka egin dezake

Gure gomendioa:

*Bankuetan dagoen dirua ateratzea baimentzeko baten baino gehiagoren sinadura eskatzea.*





- Abalak eta fidantzak

Gaizki kontabilizatutako 17.309 euroko fidantzak ikusi ditugu, abaltzat baitzeuden kontabilizatuta, eta ez zegokien kontuetan kontabilizatutako abalak ere. Akats horren ondorioz, 2012ko egoera balantzearen aktibo eta pasiboa oker daude, aipatutako zenbatekoan.

2001 baino lehenagoko 28.445 euroko abal eta fidantzak ere badaude, erregularizatu gabeak.

Akats hauek 2013ko ekitaldian zuzendu dira.

- Hartzekodunak

Hartzekodunen abenduaren 31ko saldoa 1.286.016 eurokoa da. Ondorengo kontzeptuak dituzten epe laburreko zorrei dagokie:

Kontzeptua	Saldoa
Onesitako betebeharren hartzekodunak (2012)	507.557
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak	18.060
Bestelako baliabideetako hartzekodunak	454.303
Entitate publikoak	44.140
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	261.956
<b>Epe laburreko zor eta hartzekodunak</b>	<b>1.286.016</b>

a) Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodunen 51. kontuak 226.225 euroko saldoa dauka, eta 2005ean itzulitako diruzaintza-maileguari dagokio. Saldoa 2013an zuzendu zen.

b) 2012 baino lehenagoko hartzekodunen saldoa 18.060 euro zen abenduaren 31n. Horren ehuneko 48,5 2011ko aurrekontuari dagokio. 1999tik daude hartzekodunak.

Gure gomendioa:

*Itxitako ekitaldietako saldo hartzekodunak aztertu eta erregularizatzea.*

## VI.10. Sozietate publikoa

Mankomunitateko Batzar Nagusiak “Sakanako Garapen Agentzia, S.L.” sozietatearen behin betiko estatutuak onartu zituen, maiatzaren 27an onarturiko behin behinekoei aurkeztutako alegazioez 2012ko maiatzaren 12an erabakia hartu ondoren. Estatutuak uztailaren 9an argitaratu ziren. 2012ko uztailaren 10ean Sozietatea notarioaren aurrean eratu zen eta 2013ko maiatzaren 8an egin zen merkataritza-erregistroan inskripzioa.

Sozietatearen helburua da Sakanako ekonomia bultzatzea, aholku ematea, kultura eta sorkuntza laguntzea, eta enpresa gune edo enpresen mintegiak sortzen eta kudeatzen laguntzea.





Sozietateak 2012ko kontu laburtuak egin ditu, kontabilitatearen plan orokor-  
rrak zehazten dituen kontu guztiak sartuz.

Kontuak ez ziren kontu orokorrean sartu eta Mankomunitatearen batzarrak  
ez zituen onartu. Sozietatearen administrazio kontseiluak 2013ko urtarrilaren  
17an onartu zituen 2012ko kontuak.

2012an sozietateak 14.363 euro gastatu zuen, ia dena gerentearen ordain-  
saria da. 2012an Sozietateak ez zuen bere eragiketarako diruzaintzako kontu-  
rik eta, beraz, gastuak Mankomunitateak ordaindu zituen. Sozietate publikoak  
2013an itzuli zion ordainketa Mankomunitateari.

Gure gomendioa:

*Kontu orokorraren espedientean sozietate publikoaren kontuak sartzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore  
M<sup>a</sup> Asuncion Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan  
honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 27an

Presidentea, Helio Robleda Cabezas






## **Sakanako Mankomunitateak behin behineko txostenari aurkeztutako iruzkinak**





# Mank s a k a n a



Duela gutxi Mankomunitateko Erregistro Orokorrean sartu zen entitate honen kontuak kontrolatzea xede duen behin-behineko txostena, Asunción Olaechea Estanga kontu-ikuskari andreak 2012ko ekitaldiaren gainean egin.

Hura irakurri eta aztertu ondoren, Mankomunitateak ez du horren gaineko alegaziorik ere eginen, txostenaren ondorioek ederki agertzen baitute entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa, aztertutako denboraldian bederen. Era berean, Kontuen Ganberari jakinarazten diogu txostenean adierazten den gomendio sorta handi bat betetzen hasiak garela.

Gure irudiko, entitate horrek egindako kontu-ikuskapena positiboa izan da, eta Mankomunitateak dituen baliabideen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobeki egiteko balioko du.

Nire agurrik beroena.

Lakuntzan, 2014ko maiatzaren 21ean

En fechas recientes tuvo entrada en el Registro General de la Mancomunidad que presido el informe provisional de fiscalización de esta entidad realizado por la auditora D<sup>a</sup> Asunción Olaechea Estanga, sobre el ejercicio del año 2012.

Una vez procedida a la lectura y examen del mismo esta Mancomunidad no tiene nada que alegar al mismo ya que considera que sus conclusiones reflejan ajustadamente la situación de económico-financiera de la entidad, en el periodo temporal analizado. Así mismo queremos indicar a esa Cámara de Comptos que se ha comenzado a dar cumplimiento a buena parte de las recomendaciones que en el informe se expresan.

Consideramos que la realización de la auditoría por esa entidad ha resultado positiva y servirá para la mejor gestión económico-financiera de los recursos que gestiona la Mancomunidad.

Reciban saludos cordiales.

Lakuntza a 21 de mayo de 2014

Sakanako Mankomunitatearen burua/Presidente de la Mancomunidad de Sakana

Aitor Karasatorre Mugurutza

